

Udal Aurrekontua



Idiazabalgo Udala



01

Udal Aurrekontua

Hitzaurrea



Aurten ere aho batez onartu ditugu 2010erako aurrekontuak.

Beti bezala orri hauen bitartez aurrekontuen berri eman eta zuen ekarpenak jasotzeko asmoz zuzentzen gataizkizue. Aurrekontuak onartuta izanagatik ez du esan nahi aldakorrak ez direnik. Beraz urtean zehar normala da aurreikusi gabeko aldaketaxoren batzuk izatea.

Ondoren doazkizuen taulek eta zenbaki multzoek, herriak izango dituen diru sarrerak eta gastuak aurreikusten lagunduko dizuete.

2010eko sarrera arruntak 2009 urtekoak baino TXIKIAGOAK izango dira:

2.600.000 € / 2.845.000 €

Gastu arruntetan ERE HALA BEHARREZ beherapen txikia lortu nahi da:

2.553.690 € / 2.506.042 €

Sail gehienetan gastuak mantentzen badira ere, honakotan da gora-behera.

Beharpena, Lorazaintza zerbitzuan eta Gazta inguruko gastuetan (%40 eta %30).

Gorakadak berriz, Kultura sailekotan, argazki zaharren liburua editatuko delako eta Gaztegune zerbitzu berriak eraginda batez ere,

Eta Gizarte Ongizate Sailean, Etxez-etxeko programa eta behartuei diru laguntzetan batetik eta Lan sustapenean (langabeziak bultzatuta) bestetik



Udalaren diru sarrera arruntak (gutxi gora-behera urtero errepikatzen direnak, alegia) koadroan agertzen direnak dira:
2,9 milioi € guztira.

SARRERAK	EUROAK
Kontribuzioak (IBI)	361.000
Autoen Zerga	90.000
Plusbaliak	19.000
Enpresa Jarduera Zerga.	80.000
Eraikuntza Zergak	50.000
Zabor bilketa.	80.000
Kultur ekintza eta jarduerak	42.000
Eguneko Zentroko tasak	70.000
Etxez etxeko zerbitzuko tasak	13.000
Iberdrola-Telefonica-Euskaltel	40.000
Kontuetako interesak	28.000
Diputazioaren ekarpenak	1.521.000
Eusko Jaurlaritzak	60.000
Guardi Gain, S.A. dibidibidendoak	300.000
Besteak	46.000
GUZTIRA	2.900.000



Gastu Arruntak

Gastu arrunt hauek ere gutxi gora-behera urtero errepikatzen direnak dira. Aipagarrienak hauek dira:

- Pertsonalaren gastua:
658.000 €

Udalak, 12 langile finko eta Alkatearen soldatak ordaintzen ditu. Beste 8 langilek ere jarduten dute urtean zehar Udalarentzat lanean, batzuek urte osoan eta beste batzuk aldizka. 2010ean Kultur Teknikariak jarraitzea aurreikusten da, eta gaine-

ra ludoteka eta gazteguneko langileak.

Hauek dira langile fijoak: 4 idazkaritzan, 2 obra taldean, 4 garbitzaile, gizarte langilea eta liburutegikoa.

- Gastu arruntak:
1.565.000 €

Hemen eguneroko egin-kizunei, ohizkoei, aurre egiteko behar diren baliabideen kopurua jasotzen da. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztien kostu arrunta.

Udalak ez du mailegurik iada baina 2008an Diputazioak aurreratutako zati bat itzuli behar da aurten eta honela izango da hurrengo urteetan ere, 2010ean: 83.000 E

Beste entitate eta talde ei ematen zaizkien dirulaguntzak edo ekarpen garrantzitsuenak ondoko koadroan jasotzen dira:

TRANSFERENTZIAK	EUROS
Goieki	17.500
Goierriko Eskola	18.000
Goimen	6.500
Herri eskolako Guraso Elkarteari	15.000
Herriko kultur eta kirol taldeei	59.000
Herrikoak ez diren talde/ekimenei	16.000
Gizarte Ongizateko diru laguntzak	25.000
Erakunde ez gubernamentalak	29.000
Artzai Gazta Elkartea	3.000
Euskalduntze eta alfabetatzeko	3.000
Beste batzuk	8.000
GUZTIRA	200.000



Argibide gehiago eman nahian beste era batetara sailkatuko ditugu gastu arrunt hauek:

Gastu Arruntak

ZERBITZUEN ARABERA	EUROAK
Administrazio orokorra eta gobernua	400.000
Gizarte Ongizate Zerbitzua	85.000
Etxez Etxeko Zerbitzua	65.000
Eguneko zentroa	351.000
Enplegu Sustapena	40.000
Osasun zentroa	6.000
Haurreskola	88.000
Herri Eskola	160.000
Argiteri publikoa	70.000
Parke eta lorategiak	60.000
Zabor bilketa zerbitzua	90.000
Kanposantua	6.000
Agenda 21: Ingurunea	25.000
Obratako taldea	115.000
Kultur etxea / Kultur eta kirol ekintzak	317.000
Euskara	53.000
Kiroldegia	11.000
Igerilekua	45.000
Pilotalekua	14.000
Futbol zelai	17.000
Jaietako gastuak	90.000
Jubilatuena Elkarte - Pilarrenea	26.000
Kamino - Kale	45.000
Nekazaritza - Baserriak	67.500
Gazta komisioa	70.000
Zorrak	83.000
Besteak	106.500
GUZTIRA	2.506.000

04

Udal Aurrekontua

Inbertsioak

Inbertsioak	EUROAK
Udaletxe berria ekipatzeko	100.000
Liburutegi berria ekipatzeko	100.000
Kirolegirako tresnak	5.000
Arantzazumendiko larreen lanekin jarraitzeko	12.000
Haurreskola berria bukatzeko	1.200.000
Igerilekuko putzua eta itxitura berritzeko	150.000
Igarondo baserritik Udaletxe berrira eta futbito inguruko urbanizazioa berritzeko	150.000
INBERTSIOAK GUZTIRA	1.717.000

Nola finantzatuko dira inbertsio hauek guztiak?

Aurrekontutik gelditzen denarekin	100.000
Guardi Gain, S.A. Udal enpresako dibidenduak	300.000
Subentziotatik	440.000
Udaletxeko berriko obragatik	100.000
Igerilekua eta inguruak berritzeko Plan Z-tatik	240.000
Haurreskolan geotermia sistema jartzeko	100.000
Aurreko urteetan aurreztu denetik	877.000



Aurrekontuei buruz argibide gehiago nahi bazenute, adierazi ezazue udaletxean, aurkezpen ekitaldi bat egiteko prest gaude-ta.

Gutxieneko informazio hau baliagarri izango delakoan, hona hemen 2010eko Aurrekontuko hainbat argibide